

Mendiluz Hilerriko Araudi Arkitektonikoa

I. Titulua

TIPOLOGIAK

1. Eraikuntza tipologiak

Mendiluz hilerriko hilobien eraikuntza tipologia honela sailkatu daiteke:

a) Hilobi xumea. Lur-azaleko hobi soila, arkitektura aldetik garrantzi bakoa.

b) Panteoia. Hiru gorputz zeharrekoak eta aurrealdeko paramentoaz egindako eraikuntza, konposizio arkitektonikoa dauka eta batzuetan eskulturaz hornitua:

A) Hobiratutako hiru gorpudun panteoia.

50 eta 80 zm.tan igotzen da sestra gainetik. Aurrealdean gai arkitektokikoak eta eskulturak daukaz. Orokorrean apaindura perimetrala dauka zutabe eta katekaz. (1. Eranskina, 1. irudia).

B) Hiru gorpuzdun panteoia erdigunea nabarituta.

Erdiko gorputza alboetatik nabaritu egiten da bai aireatzeko eta baita sarbidea errazteko ere bai (1. Eranskina, 2. irudia).

Gai arkitektonikoak hondoan dagozala, aurrealdean eskulturak agertzen dira.

Kasu batzuetan pilastren eta kateen apaindura perimetrala ikus daiteke.

C) Hiru gorpuzdun panteoia erdigunea nabarituta eta atea arkitektura elementu lokabea legez.

B) atalaren tipologia barruan sartzen da, sarbide-elementua multzo osotik bereiztu egiten dalarik eta nortasun propioa dauan elementu arkitektonikoa eratzen daualarik (1. Eranskina, 3. irudia).

D) Airetiko gorpuzdun panteoia.

Sarbideko atea garrantzi handiagoa hartzen dau, sarbideko tenpletearen forma-aldaera agertzen dalarik (1. Eranskina, 4. irudia).

c) Hilobi bereziak. Tenpleteak. Sestra gaineko tenpletearen forma arkitektonikoa hartzen daben eraikuntza geometrikoak dira.

Kasurik gehienetan, interes handiko arkitektura-elementuak dira.

2. Eraikuntza tipologiaren azterketa.

Eraikuntza tipologiak, bere osotasunean, harri landua edo mutxardatua erabiltzen dau, ugariena kareharri grisa dalarik. Harri leundurik ez da ikusten inon. Gitxitan bada ere, zarpeoa ere erabiltzen da gotikobarriko arkitekturaren adibide eder batzuetan.

Guzti hori ikusita, Hilerrian egingo diran eraikuntza lan guztietan egoera hori izan beharko da kontuan.

3. Jardute baldintzak.

Eraikuntza jardute guztietan, hondo eraikigarriak, orain dagozanak izango dira tipologiaren arabera.

4. Ofizioen berreskurapena.

Multzo osoaren azterketa tipologikoa egin eta gero, bere indibidualtasunean balio aintzatetsia daben lan isolaturen bat edo beste kenduta, oinarritzkoa, soila eta nagusia dan tipologia batez arauzpetuta dagoz hibobiak. Hilobi xumea alde batera itzita, hiru gorpuzdun panteoia da hedatuena, arkitektura-eskulturazko aurre-aldea daukalarik. Panteoi hau garatzen da batez ere 1. ataleko A-B-C hiru aldaeretan. Araudi honen oinarria izango dira. Oraindik ez da gomendatzen D tipologiakoak eraikitzea (ate-tenpletea edo tenplete isolatua), erabilera delikatua daukalako; bere eragin bisuala handia danez gero, babestu nahi dan multzoari garrantzia kenduko leuskio.

Eraikuntza aldetik, ofizioak berreskuratzea (hargintza kasu honetan) erraztuko leukeen Ordenantza bat egin beharko litzateke, ahal dan neurrian harrizko plakadurak ekidituz, daukien eduki semiotikoagaitik, harlandutik urrun.

4. Jardute baldintzak.

Eraikuntza jardute guztietan, hondo eraikigarriak, orain dagozanak izango dira tipologiaren arabera.

II. Titulua

DAGOZAN ERAIKUNTZAK

1. Sekzioa

Interes bereziaren eraikinak

5. Definizioa.

Interes bereziko eraikuntzat hartuko dira agiri honetan, daukiezan arkitekturazko, historiko, artistiko edo kulturazko balore berezien arabera.

Eraikuntza honeek ezin izango dabe jaso osoko eraispenaren ezta partzialaren lizentziarik.

Aurri kasuetan, derrigorrezkoa izango da eraikuntza osoa itzultzea.

6. Baimendutako jardunak.

Barrizatze zientifikoaren metodoetatik eratorritakoak. Honako honeek izan daitezke: berreskuratu ezin diran arkitektura edo eskulturazko elementuen ordezkotako bardin-bardinak jartzea: pilastrak, moldurak, mentsulak, frisuak, irudiak, etab.

Eraikuntza honeetan jarduteko beharrezkoa izango da 1:20 gitxieneko eskalan, gaur eguneko egoerari buruzko dokumentazio zehatza aurkeztea: oin, altxaera eta sekzioak; eraikuntza zertzekadak, argazki dokumentazio osoa; plano historikoak, balegoz, etab.

Tipologia-elementuak, eraikuntzaren formak eta egiturak gorderik, barrizatze zientifiko obra honeek aurrikusi daitezke:

a) Arkitektura eta eskultura barrizatzea, aldatutako zatiak lehengotara itzulirik:

—Ezabatutako barru eta kanpo aldeetako elementuak barrizatzea.

—Aurreko jardunetan eraisitako zatiak barrizatzea.

b) Eraikuntzaren berezitasun arkitektoniko, kulturazko nahiz historikoetan eragin ezezkorra daben geroko elementu degradatzaileak kentzea.

c) Teknologia edo higiene-sanitate funtsezko neurriak jartzeko, beti ere, lehen aipatu doguzan a) eta b) ataletan ezarritakoa gorderik.

d) Materialeak. Dagoan eraikuntzak daukazan materiale berberak erabiliko dira, eurek irizpideekaz erabilia. Harlanduaren ordezkotako ezin izango da jarri plakadurarik.

2. Sekzioa

Inguru-interesa daukien eraikinak

7. Definizioa.

Ordenantza honetan horretzat hartzen diranak dira, sasoiaren eredugarri eta multzoagaz bat datozenak izateagaitik. Aparteko balorerik izan ez arren, gainerakoei ondo egokitzen jakez, multzoaren osoko irudia sendotuz.

8. Baimendutako jardunak.

Eraikin honeetan eskua hartzeko, beharrezkoa izango da, gitxieneko 1:10 eskalan, gaur eguneko bere egoerari buruzko dokumentazioa aurkeztea: oin, altxatu eta eraikuntza zertzeladak, argazki dokumentazioa eta plano historikoak, balegoz.

a) Mantenimendua eta iraunarazpenari jagokozanak, beti ere, konposizio orokorra eta multzoa definitzen daberen arkitektura eta eskultura elementuak gordez gero.

b) Multzoaren berezitasunetan eragin ezezkorra daberen elementu degradatzaileak kentzea.

c) Teknologia edo higiene-sanitate funtsezko neurriak jartzeko, beti ere, lehen aipatutako a) eta b) ataletan ezarritakoa betetzen dan bitartean.

d) Dagozan eraikinetako materiale ber-berak erabiliko dira, eureekaz irizpideekaz. Debekatuta dago harlanduaren ordezkadura jartzea. Multzoagaz bat datozen materialak erabiltzea onartu egingo da. Leundutako harrizko akaberak galerazo egingo dira, hilarrian izan ezean.

III. Titulua

ERAIKIN BARRIAK ETA TIPOLOGIA

NAGUSIAK

9. Guneka taldekatzea.

Tipologia nagusia, gune horretan gehien dagoana izango da. Tipologia hori zehazteko, guneka bananduko da Hilerria, Ordenantza honetako 2. Eranskinean dagoan planoan agertzen danaren arabera.

1. Sekzioa

Panteoi gunea

10. Guneen identifikazioa.

B-E-F-G-H-I-J-K-L-LL-M guneetan, tipologia nagusia panteoia izango da.

11. Jardute aukerak.

Jardute aukera bi ikusten dira: dagoan eta agiri honetan sail-katutako eredia errepikatzea edo barria eraikitzea.

12. Tipologia aukeraketa.

a) Jadanik dagoan eta agiri honetan Interes Bereziko edota Inguruko modura sailkatu dan eredia eta jarduten dan gunean nagusi dan tipologiari (A-B-C-D) egokitutakoa aukeratzea. Diseinu barrien ondoan lehentasuna izango dau aukera honek, multzoaren harmonia gorde nahiean eta kontutan izanda, zalantza bako kalitatedun eredu sail handia dagoala.

Aukera honen barruan D eredia hartzea ere onartuta dago, ez ordea, diseinu barrietan.

Goian aipatutako aukera hau hartuz gero, errepikapena berbera izango da, bai forman bai materialetan. Onartuko diran aldakuntza bakarrak, hilarriarena eta erlijio-gaiena izango dira.

b) Diseinu Barri modura eraikuntza sortu barria planteatzen da, baina gunean nagusi dan tipologiari egokitua. Tipologia hau Erainkuntza-Tipologiari buruzko 1. atalean zehaztuta dago: A, B edo C hiru eredutan.

13. Berezitasun Geometrikoak.

Tipologia bakoitzaren berezitasun geometriak, 1. Eranskineko 1, 2 eta 3. irudietan zehaztuko diran neurrietara egokituko dira:

14. Materialeak.

Kareharri grisekoak izango dira, akabera naturalagaz (zerran, mutxardaduraz, «apiconado» erara), baina inola ere leunduta.

Hilarrian, leundutako akabera daukan beste harri mota bat ere onartzen da. Airetiko zatietan harlandua erabili beharko da derrigorrez, plakatua hobiaren hormigoizko geruzarako bakarrik onartuko da.

2. Sekzioa

Hilobien gunea

15. Guneen identifikazioa.

A-C-D-N eta Ñ guneeetan, tipologia nagusia hilobia izango da.

16. Antolamendu bako gunekak.

K eta E gunekak antolamendu bakoetat hartuko dira.

Dagoan edozein eraikuntzaren mantenimendua izan ezik, edozein jardute mota, gunek horretarako Antolamendu Plan baten arabera egin behar da.

17. Antolamendudun Gunekak.

A-C-D-N-eta Ñ gunekak antolamendudun modukotzat hartuko dira.

18. A Gunea.

Zona bitan banatzen da, A1 eta A2.

a) A1 Zona.

Tipologia. 3. Eranskinen 1. irudiko krokisaren neurrietan egin beharko da, tipologia nagusiari jagokan ereduari egokiturik.

Materialeak. Plakadurak onartuta dagoz, baltzak izan beharko dira eta akabera leundua daben marmolezkoak.

b) A2 Zona.

Tipologia. 3. Eranskinen 2. irudiko krokisaren neurrietan egin beharko da, tipologia nagusiari jagokan ereduari egokiturik.

Erremateko gurutzea, dagozanen antzekoa izan beharko da, bai neurritz, formaz, lodieraz (17 zm.), materialez eta akaberaz ere.

Materialeak. Jadanik dagoanaren antzekoa, hau da, kareharri grisa, akabera naturala zerran edo mutxardaduraz. Ez da onartzen akabera leundurik.

19. C-D-N-Ñ Gunekak.

Tipologia. .3. Eranskineko 3. irudiko krokisaren neurrietan egin beharko da, tipologia nagusiari jagokon ereduari egokiturik.

Materialeak. Onartzen dira plakatuak, akabera leundudun marmol zuriak izango dira.

20. Elementu Osagarriak

Harlauaren gainean apaingarriak jartzeko egingo diran erliebeek ezin izango dabe 5 zentimetroak gainditu.

IV. Titulua

LIZENTZIA ERREGIMENA

1. Sekzioa

Panteoiak

21. Jadanik dagozan eraikinetan.

Ordenantza honetako 6. eta 8. artikuluetan ezarritakoaren arabera aurkeztuko da dokumentazioa, Interes Berezi eta Ingurukoa dabenentzat. Egitura ikutuz gero, Goi mailako Teknikariaren proiektua aurkeztu beharko da, gai honeri buruz.

22. Panteoi barrietarako.

a) Dagoan eredu bat kopiatzeko aukera hartzea, eraikuntza barrirako baino agiri gitxiago aurkeztu beharra egongo da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa izango da: lursailean eraikuntzaren kokapena agertzen dauan planoak, zein eredu hartu dan zehazturik —agiri honetan emoten jakon izena—.

Egitura portanterik balego, Goi mailako teknikariak sinatuta egon beharko dau.

b) Burutzapenerako Egitasmo osoa aurkeztu beharko da, gitxieneko 1:10 eskalan, oin, altxatu, sekzioz eta eraikuntzaren zertzelada guztiekaz.

Proiektua, Goi mailako teknikariak sinatuta egon behar da. Egitura obrak ere, derrigorrez egongo dira zehaztuta.

2. Sekzioa

Hilobiak

23. Dagozan eraikuntzetan.

Dagozan eraikuntzetan berregite eta mantenimendu obrak burutzeko, krokisa eta Txostena edo Memoria aurkeztea nahikoa izango da, egingo diran lanak eta aurrekontua azalduz bertan.

24. Eraikuntza barrietarako.

A) Hilobi barriak egiteko, Erdi mailako Tenkikariak (Aparejadorea-Arktitekto Teknikoa) egindako Burutzapen Proiektua aurkeztu beharko da, araudi hau zehatz betetzen dala bertan egiaztaturik. b) Hilobi tipologia daben guneeetan, hilobi bakarria eraikitzeko lurzati bi bateratzea baimenduko da, kanpoko aldetik eta arkitektura-elementuei jagokenez, tipologia horretarako ezarritako baldintzetara egokitu beharko dalarik. Lurzati horreen titulartasuna erro zuzenean lehen graduako senideei jagokenean edota aldeko errotik bigarren graduakoak diranean egin ahal izango da.

25. Administraziozko beste ekintza batzuk.

Lizentziak emoteko, obrak hasteko, zuinketa akta egiteko edota Ordenantza honek zehazten ez dauan guztirako, Planeamenduaren hurrengo mailadian ezarritakora egongo da —Arau Subsidiarioen b) mota—.

(II-2.844)